



1. MAILAKO ORIENTAZIO PLANA 2022/2023



AURKIBIDEA

A- AURKEZPENA	3
B- IKASTOLAKO SAIOAK	4
C- ORIENTAZIO HITZORDURAKO ESKAERA-ORRIA	5
D- SAIOKA PLATAFORMAN (ORIENTAZIOA IKASGAIA)	6

A-AURKEZPENA

Oiartzo Batxilergo ikastolak Orientazioa eskaintzen die bere **ikasle guztiei**. Ikasle bakoitzaren beharrei erantzun eta era berean guztientzako lagungarri diren orientabideak denengana heltzeko helburuarekin antolatua dago zerbitzua.

Plangintza bat jarraitzen da. **Orientazio pertsonalari** dagokionean egokitzapen prozesuaz eta ikasteko teknikez jarduten dugu. Adinari loturiko bestelako gaiak txertatzen dira egutegian, ikastolaz **kanpoko profesionalen** parte-hartzearekin. Ikasleek ikasturtean zehar eta **etorkizunari begira** hartu beharreko erabakien inguruko gaiak lantzen dira. **Galdeketak** luzatzen zaizkie ikasleei, beraien egungo bizipenen eta etorkizuneko interesen berri izateko.

Informazio saio orokorrak burutzen ditugu ikasgeletan baina **banakako elkarrizketak** ere hitzartu daitezke orientatzailearekin. Aurrez finkatutako ordu-tegi bat egoten da horretarako eta ikasleak hitzordua eska dezake.

aolaiz@oiartzoikastola.eus **korreo elektronikoa**, aproposa da orientatzailearekin harremanetan jartzeko. Gainera ikastolaz kanpo EHUK antolatzen dituen orientazio ekintzei buruzko informazioa ere bide beretik zabaltzen da.

Ikasturtean zehar Alexia Classroom plataforma digitalera igotzen da informazio gaurkotua, egindako saioen txostenak, orientaziorako dokumentu praktiko orokorrak eta interneteko lotura interesgarriak.

B-IKASTOLAKO SAIOAK

*Datak erreferentziazkoak dira

EGUNA	EGINTZA	BALIABIDEAK	GAIA
Iraila 19-23 (55min)	1.SAIOA AURKEZPENA	GELAKA ORIENTATZAILEA SAIOKA PLATAFORMA	-ORIENTAZIO PLANAREN AURKEZPENA -IKASTEAZ HAUSNARKETA, EGOKITZAPENA ETA ANTOLAKETA: asteko plangintza, ikastordua... -IKAS OHITUREN INGURUKO TEST TXIKIA
Urria 17-21 (55min)	2.SAIOA IKASTEKO PLANIFIKAZIOA HOBETZEN	GELAKA ORIENTATZAILEA SAIOKA PLATAFORMA	-IKAS OHITUREN TESTA ETA ONDORIOAK. -ORIENTAZIO PERTSONALA: egoera orokorrak, ohiko galderak... -INFORMAZIO ITURRIAK
Azaroa 21-25 (55min)	3. SAIOA HELBURUARI BEGIRA saioa	GELAKA ARETOAN Narrea Susperregirekin, Orereta ikastolako pertsonek arduraduna.	-HELBURUARI BEGIRA: Ikastearen inguruan hausnartzeko eta helburuei lotzeko motibazio saioa.
Urtarrila 26-27 (110min)	4. SAIOA HEZIKETA AFEKTIBO SEXUALA	GELAKA PSIKOLOGOIA psikoterapeuta eta sexologian aditua: Mireia Alduncin	-Nerabeentzako (16-18) heziketa sexual integrala
Otsaila 13-17 (55min)	5.SAIOA ORIENTAZIO AKADEMIKOA	GELAKA TALDE TXIKIETAN ORIENTATZAILEA + TUTOREA SAIOKA PLATAFORMA	-JAKINTZA ETA ARLOEN ARABERAKO INFORMAZIO ZEHATZA: Ikasketa ibilbideak eta jakin beharrekoak -INFORMAZIO ITURRIAK.
Martxo 13-17 (55min)	6.SAIOA ORIENTAZIO AKADEMIKOA	GELAKA ORIENTATZAILEA SAIOKA PLATAFORMA	-2. MAILARI BEGIRAKO INFORMAZIOA: gaien aukeraketa, Batxilergoko 2.maila, hautapropa ... -ESKUORRIA BANATUKO DA INFORMAZIO HONEKIN.
Martxo 20-24 (Baieztatzeke)	7. SAIOA KMK UNITATE DIDAKTIKOA	GELAKA TUTOREAK UNITATEA	-Nerabe zein gazteetan jokabide eta ohitura osasungarriak sustatzeko helburuarekin, prebentzio-planaren barruan, Uzturpe ikastolak eta AGIPAD elkarteak antolatuta duten <i>Irri</i> eta <i>farra</i> , <i>goza irribarra</i> unitatearen lanketa.
Martxo 27-31 Apirilak 1 (30min)	8.SAIOA ORIENTAZIO AKADEMIKOA	GELAKA ORIENTATZAILEA+ZUZENDARITZA	-2. MAILARAKO OIARTZOKO ESKAINTZA -INPRIMAKIA
Maiatzean eta ekainean	EHUko JARDUERA PRAKTIKOA	IKASTOLAZ KANPOKO EKINTZA	-IKASLEAK IZENA-EMAN BEHAR DU EHUko WEBGUNEAN -Unibertsitatea ezagutzeko lehen hurbilketa bat. Unibertsitateko ikastegietara joan eta graduko ikasketak modu praktikoan (esperimintuen, muntaketan, sorkuntzen, rol-playing-aren eta abarren bidez) ezagutzeko.

C-ORIENTAZIO HITZORDURAKO ESKAERA-ORRIA

HITZORDURAKO ESKAERA ORRIA			
IKASLEAREN IZENA eta GELA:			
Azaldu labur gaia, galdera edo zalantza:			
ELKARRIZKETARAKO ORDUA AUKERATU:			
ASTELEHENA 08:40-09:30 <input type="checkbox"/>	ASTEARTEA 13:40-14:30 <input type="checkbox"/>	ASTEAZKENA 08:40-09:30 <input type="checkbox"/>	OSTEGUNA 10:15-11:10 <input type="checkbox"/>
Orria bete eta orientatzaileari helarazi			
Orientatzaileak hitzordua BAIEZTATU behar du			

HITZORDURAKO ESKAERA ORRIA			
IKASLEAREN IZENA eta GELA:			
Azaldu labur gaia, galdera edo zalantza:			
ELKARRIZKETARAKO ORDUA AUKERATU:			
ASTELEHENA 08:40-09:30 <input type="checkbox"/>	ASTEARTEA 13:40-14:30 <input type="checkbox"/>	ASTEAZKENA 08:40-09:30 <input type="checkbox"/>	OSTEGUNA 10:15-11:10 <input type="checkbox"/>
Orria bete eta orientatzaileari helarazi			
Orientatzaileak hitzordua BAIEZTATU behar du			

D- SAIOKA PLATAFORMAN (ORIENTAZIOA IKASGAIA)

Alexia Classroom izango da ikasleen informazio gune nagusia. Bertan, egiten diren saioen aurkezpenak izango dituzte ikusgai, baita Ikastola kanpotik etorriko diren adituen hitzaldien informazioa ere.

Bestalde, baliogarriak zaizkien Lanbide heziketako eskola eta Unibertsitateen webgune eta aldizkari digitaletako link-ak izango dituzte exekita. Besteak beste:

- Unibertsitateetako webguneak:

EHU <http://www.ehu.eus/eu/home>

DEUSTO <https://www.deusto.es/cs/Satellite/deusto/es/universidad-deusto>

MONDRAGON <https://www.mondragon.edu/es/grados-universitarios>

- Lanbide Heziketako webguneak:

EAE lanbide heziketa webgune nagusia <https://ivac-eei.eus/eu/>

- Hezkuntza mapa interaktiboak:

<http://cmapspublic3.ihmc.us/rid=1P4CPN3T9-ZHKR4D-171Q/hezkuntza%20sistema.cmap>

- Ikastola barruko naiz kanpoko galdetegiak:

Ikastola barrukoak: <https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSc00tTcPC7YrmK-XUCV>

Educaweb; <https://www.educaweb.com/orientacion/intereses-profesionales/>

- Bestelako webgune interesgarriak:

Orientasare <https://sites.google.com/site/orientasare/ikasketak-1/unibertsitatea>

QEDU <https://www.educacion.gob.es/notasdecorte/compBdDo>

- Unibertsitateetako gida akademikoak;

<https://www.uniscopio.com/documentos/Guia-de-Acceso-y-Admision-a-la-Universidad-2021-2022.pdf>

*Hemen azaltzen diren webguneak, Alexia Classroomen aurki daitezkeen adibide batzuk baino ez dira.